

AMASEIGARREN H ORDENANTZA

ORDENANTZA HONEK ARAUTZEN DITU, UDALERRIKO BIDE PUBLIKOETAKO LURZORU, LURPE EDO HEGALKINAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO APROBETXAMENDU BEREZIAGATIK DAUDEN TASAK, HORNIKETAREN ZERBITZUA USTIATZEN DUTEN ENPRESEN MESEDETAN EGITEN DEN ERABILERARENA.

I. XEDAPEN OROKORRAK

Artículo 1.-

1.- Udal honek tasak ezarri eta horiek galdatzen ditu, ekainaren 30eko 5/1989 Foru Arauan aurrikusitakoaren arabera, horrek arautzen baititu Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Ogasunak, udalerriko bide publikoetako lurzoru, lurpe edo hegalkinaren erabilera pribatibo edo probetxu bereziagatik, eta hori egiten du, horniketaren zerbitzua ustiatzen duten enpresen mesedetan.

2.- Ondorio horietarako, hurrengo hauek horniketaren zerbitzua ustiatzen duten enpresa gisa hartuko dira:

- a) Energia elektrikoaren, uraren edo gasaren enpresa hornitzaileak.
- b) Telekomunikazioko sare publikoak erabiliz, bai bere osotasunean bai partzialki, jendearentzat erabilgarri diren telekomunikazio-zerbitzuak eskaintzen dituztenak, horiek udalerriko bide publikoetako lurzoru, lurpe edo hegalkinaren erabilera pribatibo edo probetxu bereziarekin instalatu balira, eta sare edo instalazio horien titularitatea kontuan hartu gabe.
- c) Horniketa zerbitzua eskaintzen duen beste edozein enpresa, baldin eta hori eskaintzeko, udalerriko lurzoru, lurpe edo hegalkina okupatuko balute, non tutueriak, kableak eta ginontzeko instalazioak jarriko lituzketen.

3.- Artikulu honetan ezarritako ondorioetarako, zerbitzuen ustiaketa egiten duten enpresen artean sartuko dira, zerbitzu horiek banatu eta komertzializatzen dituztenak.

Artículo 2.- 2. Artikulua.- Ordenantza udal barruti osoan aplikatuko da.

II. ZERGAPEKO EGITATEA

3. Artikulua.-

1.- Zergapeko egitateak izango da, udalerriko bide publikoetako lurzoru, lurpe edo hegalkinaren erabilera pribatibo edo probetxu berezia, hori Horniketa Zerbitzua ustiatzen duten enpresen mesedetan gertatzen denean, baldin eta interes orokorrekoa baldin bada, edo auzotarren zati garrantzitsu bati afektatzen badio.

2.- Kuantifikazio erregimen hori aurreko artikuluan adierazitako enpresei aplikatuko zaie, bai dagozkien sareen titularrak balira, zeinen bidez egingo lituzketen horniketak, baina baita ere, aipatu sareen titularrak izan gabe, horien erabileraren, sarbidearen edo interkonexioaren eskubide-titulua balute.

3.- Telefonia mugikorreko zerbitzuak ez dira kuantifikazioko erregimen berezi horren barruan sartuko.

4.- Tasa hau bateragarria izango da, toki eskumenekoak izan daitezkeen zerbitzuak eskaintzeagatik edo jarduerak egiteagatik ezarri litezkeen beste tasekin, eta horniketa-zerbitzua ustiatzen duten enpresak, zerbitzu horiei dagokienez, subjektu pasiboak izango dira, 5/89 Foru Arauko 23.1.b) artikuluan ezarritako dagoen bezala, eta modu horretan, tasa honen ordainketagatik, salbuetsita egongo da beste tasen

ordainarazpena, hain zuzen, udalerriko bide publikoetako lurzoru, lurpe edo hegalkinean eraturako erabilera pribatibo edo aprobetxamendu berezitik eratorritakoen ordainarazpena.

III. SUBJEKTU PASIBOA

4. Artikulua.-

1.- Subjektu pasiboak dira, zergadun kontzeptupean, Bizkaiko Lurralde Historikoko Tributuen gaineko Foru Arau Orokorreko 34. artikuluan aipatzen diren pertsona fisikoak, juridikoak eta erakundeak, hain zuzen, horniketa-zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresen titularrak direnak, baldin eta interes orokorrekoak balira edo auzotar gehienei edo horien zati garrantzitsu bati afektatuko balie, eta udalerriko bide publikoetako lurzoru, lurpe edo hegalkinari erabilera pribatibo edo aprobetxamendu berezia emango balie.

2.- Artikulu honetan ezarritako ondorioetarako, zerbitzuen ustiaketa egiten duten enpresen artean sartuko dira, zerbitzu horiek banatu eta komertzializatzen dituztenak.

IV.- SALBUESPENAK, MURRIZKETAK ETA HOBARIAK.

5. Artikulua.- Zerga-salbuespenak edo beste zerga-onurak ematea, aplikagarri diren xedapen orokorretan ezarritakoari lotuko zaio.

V. ZERGA-OINARRIA

6. Artikulua.-

1.- Tasaren zerga-oinarria fakturaziotik lezazkeen sarrera gordinek emango dute, hain zuzen, horniketa-zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek, urtero, udal barrutian lor lezazketenak.

2.- Sarrera gordinak direla joko da, justu, enpresari egotzi lezaizkiokeenak, hain zuzen, horrek, kontraprestazio gisa, udalerrian eskainitako zerbitzuengatik lor lezazkeenak.

3.- Zeharkako zergak ez dira sarrera gordin bezala hartuko, hain zuzen, eskainitako zerbitzuengatik kargatzen direnak, eta ezta ere hirugarrenen kontura kobratutako kopuru edo zenbatekoak, baldin eta horiek ez balute eraturako horniketa-zerbitzua ustiatzen duen enpresaren sarrera propioa.

4.- Horniketarak egiteko, besteen sareak erabiltzen dituzten enpresak direnean, beren fakturazioko sarrera gordinetatik, beste enpresei ordaindutako kopuruak kenduko dituzte, justu, haien sareetara sartzeko edo haietara interkonektatzeko ordaindutakoak. Sare horien titularitatea luketen enpresek, kontzeptu horrengatik jasotako kopuruak zenbatu beharko dituzte, beren fakturazioko sarrera gordinen artean.

5.- Tributuen Foru Arau Orokorreko 92. artikuluan eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Ikuskapen Araudiko 51. artikuluan ezarritakoaren arabera, sareen titularitatea luketen enpresek udalak eska lezaiekeen informazioa eman beharko dute, hain zuzen, argitu egin beharko dute, sareetara sarbidea edo interkonexioa eukitzearen kontzeptupean, dirusarrerak zein enpresetatik jasotzen dituzten.

VI.- KUOTA.

7. Artikulua.-

1.- Zerga-kuota honako hau izango da, hots, udal barrutian, urtero, enpresek lor lezaketan fakturaziotik eratorritako sarrera gordinen 100etik 1,5ekoa.

2. Baldin eta aprobetxamendu bereziak, udal jabari publikoaren suntsiketa edo kaltetzea ere sortuko balu, onuradunak, ordaindu behar lukeen tasa ordaintzearen kalterik gabe, berreraikitze edo berritze gastuei dagokien kostu osoa itzultzeko obligazioa izango du, eta zenbatekoa, aurretiaz jartzeko, obligazioa ere izango du.

3.- Kalteak konponezinak izango balira, Udalari, suntsitutako ondasunen balio bereko zenbatekoa izango duen indemnitazio eman beharko zaio, edo kaltetuaren narriadurari dagokion zenbatekoa.

4.- Udalak ezingo ditu barkatu, ez osorik, ez zati batean, atal honetan adierazten diren indemnitazio eta itzulketak.

VII.- ZERGAREN SORTZAPENA ETA ZERGALDIA.

8. Artikulua.-

1.- Udal jabari publikoa okupatzearen ondorioz, udalerriko bide publikoetako lurzoru, lurpe edo hegalkinaren erabilera pribatibo edo probetxu bereziagatik ezarritako tasa, horniketaren zerbitzua ustiatzen duten enpresen mesedetan ezarria, aprobetxamendu berezi horri hasiera ematen zaionean sortuko da, eta geroan, urte bakoitzeko urtarilaren 1ean.

2.- Zenbait arrazoi tarteko direla, baina subjektu pasiboari egotzi ezin lezaizkiokeenak izanik, jabari publikoaren aprobetxamendua ez baliz garatuko, dagokion zenbatekoa itzuli egin beharko litzaioke.

VIII. LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA.

9. Artikulua.- Udalak egoki litzatekeen likidazioa egingo du, eta likidatutako kopurua ordaindu beharko da.

IX.- TASEN KUDEAKETA.

10. Artikulua.- Horniketa zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek, hiruhilabete natural bakoitzeko lehen hamabost egunetan, Udaletxean, aitortpena aurkeztu beharko dute, hain zuzen, aurreko hiruhilabetean lortutako sarrera gordinei dagokiena. Aipatu aitortpenarekin batera, udalerrian egindako fakturazioa egiaztatuko duen dokumentazioa aurkeztu behar da, hala nola Udal Administrazioak, kasu bakoitzean, eska lezakeena.

11. Artikulua.-

1.- Udal Administrazioak hiruhilabete bakoitzari legokiokeen likidazioa egingo du, eta horrek behin-behineko izaera izango du, dagozkion egiaztapenak egin arte. Egiaztapen horiek egindakoan, behin-betiko likidazioa egingo da, eta hori interesatuari jakinaraziko zaio. Borondatezko epealdia agortutakoan, zorra premiamendu bidez eskatuko da.

2.- Edozein modura, behin-behineko likidazioak behin-betiko bihurtuko dira, aurreko artikuluan aipatutako aitortpenaren aurkezpen-datatik hasita, hiru urte igarotzen direnean.

3.- Artikulu honetan eta aurrekoan jasotako kudeaketa-arauek ordezkotako izaera izango dute, Horniketa-zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresen eta Udalaren artean hitzarmenak edo akordioak leudekenean.

12. Artikulua.- Bai zergari dagokion edozein arau-hausteetan, bai horien kalifikazio desberdin guztietan, bai horiei legozkiekeen zehapenetan, Tributuen gaineko Foru Arau Orokorrean eta Ordenantza Fiskal Orokorrean ezarritakoa aplikatuko da.

X.- XEDAPEN GEHIGARRIA
ADMINISTRAZIOEN ARTEKO ELKARRERAGINGARRITASUNA

1. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak 28. artikuluan ezartzen duenez, dagoeneko administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administrazio eginduen dokumentuak ez aurkezteko eskubidea dute interesdunek. Basauriko Udalaren zerbitzu/sail eskudunak elektronikoki kontsultatu edo bildu ahal izango ditu dokumentu horiek, datuen bitartekotza-plataformen edo horretarako gaitutako beste sistema elektronikoko batzuen bidez. Arrazoi teknikoak direla eta elkarreragingarritasuna ezinezkoa bada, izapideak egiteko behar diren dokumentuak aurkezteko eskatu ahal izango zaio interesdunari.

2. Zilegi da datu pertsonalen tratamendua egitea, interes publikoaren aldeko eginkizun bat betetzean edo Basauriko Udalari emandako botere publikoak gauzatzean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1 e) artikuluan aurreikusitako baldintzetan. Datuak minimizatzeko printzipioarekin bat etorritik, datu egokiak, beharrezkoak eta ezinbestekoaren neurria mugatuak bakarrik eskatuko dira, datu horiek tratatzeko helburuen arabera (DBEO, 5.1.c artikulua).

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza honi, behin-betiko onspena eman zitzaion, eta indarrean sartuko da 2006ko urtarrilaren 1ean, eta indarrean jarraituko du, hori aldatzea edo baliogabetzea erabaki arte.

2022ko urriaren 27ko akordioaren bidez aldatua